


# GAZTE LANGILE EZ MAKURTU jazarpen polizialari aurre egin

Joan den ostegunetik, abuztuak 6, ostiralerako, abuztuak 7, gauean, ertzaintzak ia hutsik zegoen Gasteizko Alde Zaharra garbitzeko operazio desproporzionatua burutu zuen. Gutxi, baina badaude interneten izugarrizko despliege honen irudiak. Gutxienez, 3 lagun atxilotu zituzten, kalean egote hutsagatik. Jarraian, gau horretan atxiloturiko kide baten testigantza literalki transkribatu dugu. Behin esposak jarrita zituela jipoitu zutela kontatzen du bertan, bai kalean eta baita komisaldegian ere. Atxiloketaren zergatia: polizia grabatzea, hots, zelataria zelatatzea. Ezinbesteko deritzogu burgesiaren indar armatuen jazarpen poliziala publikoki salatzea, beraien inpunitatea mugatzeko.

## ATXILOTURIKO KIDE BATEN TESTIGANTZA




Gaueko ordubata terdiak. Eguna primeran pasa eta gero jaia tabernetan amaitzeko ordua da. Lasai lasai tabernatik irten behar ginen, baina gau hori ez zen izan halakoa. Aurrekoan bezala eta hurrengo egunetan gertatu zen bezala. Ordubiak laurden gutxi dira, eta kutxiko taberna batetik ateratzen naiz. Nire sorpresan, hogeit bat ertzain ikusten ditut kanpoan, zeintzuk printzipioz ez datozen aurpegi onarekin. Botatzen ari dira kutxi kaletik, “ezin da hemen egon” behin eta berriz errepikatzen jendea mugiarazi gintuzten pareko kaleetara. Ni pintoreria kalera jaitsi nintzen auzokide batekin gustora nenbilerako hitz egiten. Han genbiltzan hogeit pertsona inguru, hiruzpa-bosteko koadriletan sakabanaturik, koadrila bakoitzak adosten zer egingo zuen momentu horietan, noin bapatean, santa maria kantoitik hasi ziren ertzainen kotxeak pintoreria kalea oso abiadura handian zeharkatzen. Guztiok ikusten genbiltzan baina ni egoera grabatzen hasi nintzen. Kotxeak eta furgonetak hasi ziren iristen eta berriz ere han geunden pertsonak beste leku batera mugiarazi. Ni guztia grabatzen nenbilerako mugikorra gordetzeko eta ez grabatzeko eskatu zidaten eta argi utzi nahi izan nien nire egoera edo ingurua grabatzen nengoela, haien aurpegiak ez zirela ari ateratzen, eta haiek ezer txarto ez bazuten egiten ez zirela zertan kezkatu behar, suposatzen delako interbentzio “normal” bat dela. Ez zen hala izan. Konturatu nintzenerako paretaren aurka jarri ninduten eta nire mugikorra emateko hasi ziren esaten.



*Ez niela nire mugikorra eman behar esan nien, hor hasi ziren jipoiak, bideoa gelditu eta eman nien mugikorra. Hor hasi zen nire amesgaiztoa. Esposak jarri eta kale erdian egonda mehatxuekin hasten dira, nire etorkizunaz hitz egiten. “ez dut ezer egin” esaten diet, haiek ez dakite zer den hori, nitaz barrez hasi ziren hor lurrean egonda. Eta ea horrela tratatuko zuten haien semea galdetu nien. Erantzuna: jipoiak. Behingoz esaten didate komisaldegira eramango nautela. Kotxean sartzean bapatean abiadura handian hasten dira kotxearekin alde zaharrea zehar eta konturatzen naiz gerrikoa ez dudala lotuta eta bi ertzainei esaten diet. Lehen kurba ailegatuta ikusi nuen berdin zitzaiela eta horrela eraman ninduten karrera bat bezala komisaldegiraino. Eta nire segurtasuna? Komisaldegia, egon denak badaki deitu ahal dugula “casa del terror”. Katxtoa dator, kalabozo batean sartu eta biluzketa hasten da. Ertzain mordoa, probokazioekin biluzten nintzen bitartean, hor bota nituen nire gaueko azken hitzak nire duintasunagatik hor biluzik nengoela. Hor jaso nuen nire gaueko azken jipoia. Berdin zitzaien nire duintasuna. Gauean zehar mamu txarrak joaten dira eta pertsona bat bezala tratatzen zaituzten ertzainak hasten dira agertzen. Zer gertatu da? Nortzuk ziren besteak? Epaitegian amaitzen dut epaiketa azkarrarekin, poliziarik atentatua leporatu didate. Ea ukatu nintzen grabatzen uzteari galdetzen didate. Baietz, ukatu nintzela esaten dut. Hurrengo galderak ea botilak bota ditudan eta ea polizia jo dudan. Erantzuna ezetz. Ta nire barneko galdera, grabatzen dudan bitartean jotzen edo botilak botatzen ibiliko naiz? Ba beti bezala, haiek nahi dutena. Epaiketa “visto para sentencia” gelditzen da. Aske nago baina zein egoeratan? Bakarrik grabatzen nengoen. Nire babes arma bakarrena dena egun hauetan. Ba noski, bideoa ezabatu zuten. Hemen ez da ezer gertatu.*

Zenbait gazte batu gara Gasteizko jaietan zehar eman den, baina orokorrean gure egunerokotasunean gero eta ohikoagoa egiten ari den bortizkeria poliziala salatzeke. Azken hilabeteotan normalizatzen ari den presentzia eta interbentzio polizialari aurre egin behar zaiola deritzogu, bestela gure sen komunean txertaturik geratzeko arriskua aurreikusten baitugu.

Kaleen militarizazioa, dohako bortizkeria, probokazioak, autoritarismo esplizitua... finean burgesiaren kontrol sozialerako mekanismoen eguneraketaz ari gara, Euskal Herrian berri egiten ez zaizkigunak, baina gatozen langile belaunaldi berriontzako normaltzat jo ditzagun bilatzen duena. Beldurraren bidez sumisioan hezi nahi gaituzte, hau da, haien behar berriei egokituko zaien arauetan disziplintatu nahi gaituzte. Eta helburu horretan gazte langileok paper garrantzitsua jokatzen dugu, gu izango baitgara sistemaren makinaria eusten jarraituko dugunak, eta gaurdanik nahi dute gure papera zein den ongi ikasia izan dezagun.



Bertsio ofizialaren arabera osasun krisia kudeatzen ari dira, eta horrela justifikatzen dituzte haien interbentzioak. Gure ustez COVID19a aitzaki hutsa da, gero eta sakonagoa den krisi sozialak behar dituen baldintza berriak ekoizteko aitzaki ideologikoa. Zentzugabea da neurriok larrialdi sanitarioaren logikarekin azaltzea, hau da, osasun irizpideak ardatz, han hemen orokortzen ari diren praktika autoritarioak ezin dira uler. Adibidez, zer da 1:30etan aldatzen dena, kaleetan jende gutxien dagoen ordua izanik, abereak gidatzeko moduko interbentzio polizialak beharrezko izateko? Zergatik ezin da plazan lagunartean trago bat hartzen egon baina bai ordea ordaindutako diskoteketan hamarnaka pertsona batu?

Txontxongilo armatu hauek inpunitate osoarekin jokutzen dute, hara eta hona doaz, kasko eta ezkutu, praktiketan egongo bailiran haien joko zelai pribatuan. Haien aurrean babesgabe nahi gaituzte, desinformaturik, zer egin dezakegun jakin gabe, insubordinazio txikiena zanpatzeko prest... Horren adibide dugu aurreko ostegunean polizia grabatze hutsagatik jipoitu eta komisaldegira eramán ostean tratu txarrak jasan dituen kidearen esperientzia. Bereziki larria iruditzen zaigu babesgabetasun egoera totalen, makurrarazteko praktika koldar hauen erabilpena. Horregatik elkartasun osoa helarazi nahi diogu bai kasu honetan zein beste edozein tankerako egoeran erreprimitua izan den orori.

Askatasun politikoen defentsa inoiz baino garrantzitsuagoa bilakatzen da bizi dugun klase ofentsiba honen aurrean. Indar armatuen gaineko ikuskaritza bera ukatua zaigu langileoi. Bideo ziztrin bat ezabatzeko gure mugikorra hackeatzeko arazorik ez dute. Eta hau guztia estatu burgesaren aparatuen eskutik, haien interesak defendatzeko. Horregatik langileon aurkako jazarpen polizialari aurre egiten jarraituko dugu. Gazte langile, ez zaitez makurtu!

**Gasteizen, 2020ko abuztuaren 12an.**

# GAZTE LANGILE EZ MAKURTU


## enfrentate al abuso policial

La noche del jueves, 6 de agosto, al viernes, 7 agosto, la ertzaintza realizó un despliegue policial desproporcionado para barrer las calles casi desiertas de Alde Zaharra, en Gasteiz. Aunque pocas, hay imágenes circulando por internet, que muestran lo desproporcionado del dispositivo. Al menos, fueron detenidas tres personas por el mero hecho de estar en la calle. A continuación transcribimos literalmente el relato de uno de los detenidos dicha noche, en el que da cuenta de que recibió palizas una vez esposado, tanto en la calle como en comisaria. El motivo de la detención: grabar a la policía, vigilar al vigilante. Consideramos indispensable denunciar públicamente el abuso policial de las fuerzas armadas de la burguesía, para limitar su impunidad.

## RELATO DE UNO DE LOS DETENIDOS



*La una y media de la madrugada. Después de haberlo pasado muy bien durante el día, es la hora de terminar la fiesta en los bares. Íbamos a salir tranquilamente del bar pero aquella noche no acabo como esperábamos. Son las dos menos cuarto y salgo de un bar de la Kutxi. Para mi sorpresa, veo a una veintena de ertzainas fuera, que, en principio, no vienen con muy buena cara. Nos están echando de la calle Kutxi, repitiendo una y otra vez “aquí no se puede estar” nos movieron hacia las calles de enfrente. Yo baje a la calle Pintorería porque estaba a gusto hablando con un amigo del barrio. Ahí estábamos cerca de 20 personas, dispersas en cuadrillas de entre tres y cinco personas, cada grupo hablaba de lo que iba hacer en esos momentos, cuando, de repente, los coches de la ertzaintza que venían del cantón Santa María empezaron a cruzar la calle Pintorería a toda velocidad. Todos andábamos mirando pero yo empecé a grabar la situación. Empezaron a llegar coches y furgones y volvieron a movernos a otro sitio. Yo estaba grabando todo y me pidieron que guardara el móvil y que no grabara y quise dejarles claro que me estaba grabando a mí y los alrededores, que no estaba sacando sus caras, y que si ellos no estaban haciendo nada mal, no se tenían que preocupar de nada, ya que se supone que era una intervención “normal”. Pero no fue así. Para cuando me di cuenta, me pusieron contra la pared y me empezaron a decir que les diese el móvil. Les dije que no les iba a dar el móvil*




*y ahí empezaron los golpes, paré el video y les di el móvil. Ahí empezó mi pesadilla. Me ponen las esposas y en medio de la calle empiezan con las amenazas, hablándome de mi futuro. “No he hecho nada” les digo, ellos no saben lo que es eso, empezaron a reírse de mí cuando estaba en el suelo y les pregunté a ver si tratarían así a sus hijos. La respuesta, más golpes. Por fin me dicen que van a llevarme a comisaría. Cuando entro al coche, empiezan a circular a gran velocidad por el Casco Viejo, me doy cuenta de que no llevo puesto el cinturón y se lo digo a los dos ertzainas. Con la primera curva me di cuenta de que les daba igual y así me llevaron hasta la comisaría. ¿Y mi seguridad? La comisaría, el que ha estado sabe que le podríamos llamar “casa del terror”. Llega el cacheo, me meten en un calabozo y me obligan a desnudarme. Mientras me desnudaba ante las provocaciones de un montón de ertzainas, ahí eché mis últimas palabras de la noche, mientras me encontraba desnudo por mi dignidad. Ahí recibí mi último golpe de la noche. Les daba igual mi dignidad. Durante la noche se van yendo los fantasmas malos y empiezan a aparecer ertzainas que te tratan como a una persona. ¿Qué ha pasado? ¿Quiénes eran los otros? Acabo en el juzgado con un juicio rápido, me acusan de atentado a la policía. Me preguntan a ver si me negué a dejar de grabarlos. Les digo que sí, que me negué. Las próximas preguntas a ver si he tirado botellas y he pegado a la policía. Les respondo que no. Y me pregunto a mi mismo, ¿voy a estar pegando o tirando botellas mientras grabo? Pues como siempre, lo que ellos quieran. El juicio queda “visto para sentencia”. Estoy libre pero en que situación? Solo estaba grabando. Que es mi única arma de defensa estos días. Y claro, borraron el video. Aquí no ha pasado nada.*



Unos cuantos jóvenes nos hemos juntado para denunciar la violencia policial que se ha dado a lo largo de las fiestas de Gasteiz, pero que en general y en nuestro día a día se está haciendo cada vez más común. Creemos que hay que hacerle frente a la presencia y las intervenciones policiales que en los últimos meses se están normalizando, ya que existe el peligro de que se introduzcan en nuestro sentido común.

Militarización de las calles, violencia gratuita, provocaciones, autoritarismo explícito... al fin y al cabo estamos hablando de la actualización de los mecanismos para el control social que utiliza la burguesía. Mecanismos que en Euskal Herria no se nos hacen nuevos, pero que buscan ser aceptados con normalidad por las nuevas generaciones de trabajadoras. Nos quieren educar en la sumisión a través del miedo, es decir, nos quieren disciplinar en normas adaptadas a sus nuevas necesidades. Y las jóvenes trabajadoras jugamos un papel importante para ese objetivo, ya que seremos nosotras las que sigamos sosteniendo la maquinaria del sistema, y quieren que, desde hoy, tengamos bien aprendido cuál es nuestro papel.



Según la versión oficial, están gestionando la crisis sanitaria y así justifican sus intervenciones. En nuestra opinión, el COVID19 es sólo una excusa, es la excusa ideológica para crear las nuevas condiciones que exige la actual crisis social, que cada vez es más profunda. No tiene sentido explicar las medidas desde la lógica de la crisis sanitaria, esto es, tomando como eje los criterios sanitarios no se pueden entender las prácticas autoritarias que aquí y allá se están generalizando. Por ejemplo, ¿Qué es lo que cambia a la 1:30, siendo la hora que menos gente hay en la calle, como para realizar intervenciones policiales en las que parecen estar dirigiendo un rebaño? ¿Por qué no puedes estar con tus amigos echando un trago en una plaza, pero decenas de personas pueden juntarse en una discoteca de pago?

Estas marionetas armadas juegan con total impunidad, van de aquí para allá, con casco y escudo, como si estuvieran de prácticas en su campo de juego privado. Nos quieren indefensas frente a ellos, desinformas, sin saber lo que podemos hacer, dispuestos a reprimir la más pequeña de las insubordinaciones... Ejemplo de ello es la experiencia del compañero que, el pasado jueves, fue golpeado y sufrió malos tratos en comisaría por el simple echo de grabar a la policía. Nos parece especialmente grave que, en una situación de total vulnerabilidad, se utilicen estas prácticas cobardes para hacer que nos agachemos. Por eso, queremos transmitir toda nuestra solidaridad a todas aquellas que han sido reprimidas, tanto en este caso como en otras situaciones similares.

La defensa de las libertades políticas es más importante que nunca frente a la ofensiva de clase que estamos viviendo. A las trabajadoras se nos niega la supervisión de las fuerzas armadas. No tienen problemas en hackearnos el móvil para borrar un simple video. Y todo esto se da por parte de los aparatos de estado de la burguesía, para defender sus intereses. Por eso, seguiremos haciéndole frente al abuso policial en contra de la clase trabajadora. Gazte langile, ez zaitez makurtu!

**Gasteiz, 12 de agosto de 2020.**